

Arazo pertsonalak dauzka inpertsonaltasunak

Ane Odria¹, Ane Berro² eta Beatriz Fernández¹

¹Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

²Deustuko Unibertsitatea (DU)

Eibar, 2021eko uztailaren 2an
Hizkuntzalari Euskaldunen V. Topaketa
UEU

0. Atarikoa: arazo pertsonalak

Arazo **pertsonalak** dauzka **inpertsonaltasunak**

(Albizu 2001; Ortiz de Urbina 2003; Berro eta Fernández 2021; Berro, Odria eta Fernández 2021)

(1) **Liburu horiek** erraz **saltzen dira**.

- ‘**Liburu horiek**’: barne argumentua / osagarri zuzena
- Kanpo argumentua / subjektu iragankorra: isilduta
- ‘**saltzen dira**’ = 3ABS.pl



Kanpo argumentua sintaktikoki ere indarrean? Ba al du islapen sintaktikorik?

0. Atarikoa: arazo pertsonalak

(2) Liburu hauek erraz irakurtzen dira.

(3) Urak ekarri ditu enbor horiek honaino.

(4) Enbor horiek honaino ekarri dira.

- Isilpeko kanpo argumentua: **gizakia ezinbestean**

(5) Itsasontzia hondoratu zen (asegurua kobratzeko).

(6) #Ni hondoratu nintzen. 😞

(7) #Zu hondoratu zinen. 😞

- Barne argumentua (osagarri zuzena): **3. pertsonakoa nahitaez**

0. Atarikoa: arazo pertsonalak




Kanpo argumentua sintaktikoki ere indarrean? Ba al du islapen sintaktikorik?

Beste galdera batzuk:



Zer dute berezi egitura inpertsonalek?

 *a. Zergatik izan behar du kanpo argumentu isilak pertsona interpretazioa?*

 *b. Eta zergatik ezin du barne argumentuak 1. edo 2. pertsonako izenordaina izan?*

0. Atarikoa: arazo pertsonalak

Batzuetan arazo pertsonalek badute **konponbidea**

- Datiboz markatzen badira → 1. eta 2. pertsonako barne argumentuak

(8) Ondo ikusten zait (*niri*) handik?



(9) Ez zaizu ezagutu ere egiten (*zuri*) orrazkera berri horrekin.



Hitzaldiaren egitura

1. Egitura inpertsonalaren morfosintaxia: lehen hurbilketa
2. Kanpo argumentu isilaren izaera sintaktikoa
3. Barne argumentuaren pertsona murriztapena
4. Arazo pertsonalaren bi aldeak batzen: analisi sintaktikoa
5. Pertsona murriztapenak badu bere konponbidea
6. Ondorioak

1. Egitura inbertsonalen morfosintaxia: lehen hurbilketa

- Morfologikoki egitura **iragangaiztua**

(10) **Unaik** **armiarmak** hil **ditu**.

Iragankorra / arazlea

(11) **Armiarmak** (zapata honekin) hil / hiltzen **dira**.

Iragangaitza / inbertsonala

(12) **Armiarmak** (berez) hil / hiltzen **dira**.

Iragangaitza / inkoatiboa

1. Egitura inbertsonalen morfosintaxia: lehen hurbilketa

- Semantikoki iragankorra dena, **sintaktikoki ere iragankorra** da

(Berro eta Fernández 2021; Berro eta beste 2021)

- ✓ Ekintzaren egileari zuzendutako modifikatzaileak

(13) Itsasontzia **nahita / kontu handiz** hondartu zen.

- ✓ Sintagma instrumentalak eta komitatiboak

(14) Karramarroak erraz harrapatzen dira **eskuekin / salabardoarekin**.

- ✓ Bigarren mailako predikazioa


(15) Ibaia erraz zeharkatzen da **oinutsik**.

- ✓ Perpaus adjuntu bateko PRO argumentuaren gaineko kontrola

(16) Itsasontzia hondoratu zen [aseguruak kobratzeko].

1. Egitura inbertsonalen morfosintaxia: lehen hurbilketa

☞ Kanpo argumentua sintaktikoki islatzen da, ohiko subjektu iragankorrek islatzen diren tokian (Berro eta beste 2021)



2. Kanpo argumentu isilaren izaera sintaktikoa



Proposamen teorikoa (Berro eta beste 2021)

- Kanpo argumentua *pro* bat da (Albizu 1997, 2001).
- DS kategoriako [PERTSONA] izenordain isil bat: [+gizaki] interpretazioa.
- Numero tasunik **ez**; balio zehaztugabeko pertsona tasuna **bai**.

2. Kanpo argumentu isilaren izaera sintaktikoa

- Singularra edo plurala, baina beti **pertsona**

(Rodet 1992; Albizu 2001; Berro eta beste 2021).

→ kanpo argumentu isila **ez da** ohiko kanpo argumentua

(17) **Langileak** teilatuetako teilak *eraman* ditu hondartzaraino. [+ gizaki]

(18) **Haizeak** teilatuetako teilak *eraman* ditu hondartzaraino. [- gizaki]

(19) Teilatuetako teilak *eraman* dira hondartzaraino. [+ gizaki]

2. Kanpo argumentu isilaren izaera sintaktikoa

- Euskarazko inbertsonalak ez dira bakarrak: gaztelaniaz, pasibo analitikoaren eta *se-pasibo/inbertsonalen* artean bada desberdintasuna

(Mendikoetxea 1999; Ormazabal eta Romero 2019, 2020).

PASIBO ANALITIKOA

(20) Muchos libros **fueron quemados/destruidos** (por el fuego) aquella noche.
[- gizakia]

SE-PASIBO/INPERTSONALA

(21) **Se quemaron** muchos libros aquella noche. [+ gizakia]

(Ormazabal eta Romero 2019: 62)

2. Kanpo argumentu isilaren izaera sintaktikoa

- Kanpo argumentu isila **DS bat da**.

- Argumentu isilak DS edo phiS izan daitezke (Landau 2010)
- DSek bakarrik ahal dute:
 - bigarren mailako predikazioa zilegiztatu.
 - anafora elkarkari eta bihurkariak uztartu.

2. Kanpo argumentu isilaren izaera sintaktikoa

(i) Bigarren mailako predikazioa

(Berro eta beste 2021)

(22) Ibaia erraz zeharkatzen da **oinutsik**. 😊

(23) Herriko ereserkia **zutunik** kantatzen da. 😊

(24) Kanta hori **mozkortuta** kantatzen da. 😊

- Berriz ere, euskara ez dago bakarrik.

2. Kanpo argumentu isilaren izaera sintaktikoa

- Gaztelaniazko pasibo analitikoak ez ditu horrelakoak baimentzen, bai ordea *se-pasibo/inpertsonalak* (Ormazabal eta Romero 2019, 2020).

PASIBO ANALITIKOAK

(25) *Maria no es besada **borracho**. 😞

(26) *Allí, todos los años las fiestas son celebradas **vertidos con trajes típicos**. 😞

SE-PASIBO/INPERTSONALAK

(27) ¡No se besa a Maria **borracho**! 😊

(28) Allí, todos los años se celebran las fiestas **vestidos con trajes típicos**. 😊

(Ormazabal eta Romero: 2019: 75-76)

2. Kanpo argumentu isilaren izaera sintaktikoa

(ii) Anaforen uztardura

(Berro eta beste 2021)

Batez ere, aspektu inperfektua duenean, ✓ anafora elkarkaria

(Albizu 1997; Ortiz de Urbina 2003)

(29) **Elkar** engainatzen denean, ... (Ortiz de Urbina 2003: 588)

(30) Hona heltzean, **elkar** agurtzen / besarkatzen da.

2. Kanpo argumentu isilaren izaera sintaktikoa

(ii) Anaforen uztardura

Anafora bihurkarien artean, bat bakarrik uztartu daiteke: **norbere burua**.

(31) ***bere burua** engainatzen denean, ... (Ortiz de Urbina 2003: 588)

→ Ezgramatikala, ez kategoriagatik, baizik eta pertsona espezifikoa duelako.

(32) **Norbere burua** engainatzen denean, ...

(33) Ikastaroaren lehen egunean, **norbere buruari** gutun bat idatziko zaio.

2. Kanpo argumentu isilaren izaera sintaktikoa

(ii) Anaforen uztardura



(34) Beste inorena baino lehen, (**nik/zuk/horrek**) **nire/zure/bere burua** maitatzen dut/duzu/du.

- ‘**Norbere burua**’: aurrekari biziduna eta gizakia behar du, baina **pertsona tasun zehaztugabea** duena.

(35) Beste inorena baino lehen, **norbere burua** maitatzen da hemen.

(36) *Beste inorena baino lehen, (**nik/zuk/horrek**) **norbere burua** maitatzen dut/duzu/du.

3. Barne argumentuaren pertsona murriztapena

- Inpertsionalen beste arazo pertsonala: barne argumentua 3. pertsonakoa ezinbestean, gehienetan [- gizakia]

(Rodet 1992; Ortiz de Urbina 2003; Berro eta Fernández 2021; Berro eta beste 2021).

(5) Itsasontzia hondoratu zen (asegurua kobratzeko).

(6) # Ni hondoratu nintzen.



(7) # Zu hondoratu zinen.



Inkoatiboetan bakarrik posible, zergatik?

- Inkoatiboen eta inpertsionalen arteko diferentzia: kanpo argumentu isilaren presentzia → pertsona murriztapena kanpo argumentuaren presentziak eragiten du.

3. Barne argumentuaren pertsona murriztapena

- [Pertsona] tasuna dago murriztuta, ez [numeroa].

(37) # Gu hondoratu ginen.

(38) # Zuek hondoratu zineten.

- Kanpo argumentu isilak [pertsona] tasuna dauka, baina ez [numeroa].

Egitura inpertsonalaren paradoxa: kanpo argumentuak (subjektuak) zehaztuta dakarren tasuna ([**pertsona**]) barne argumentuak ezin du zehaztuta izan eta alderantziz, kanpo argumentuak zehaztuta ez dakarren tasuna ([**numeroa**]) barne argumentuak zehaztuta izan dezake.

4. Arazo pertsonalaren bi aldeak batzen: analisi sintaktikoa

Inpertonalen analisiak jaso behar du:

- Subjektuaren eta osagarriaren kasu eta komunztadura harremanak lotuta daude.
- Ohiko egitura iragankorrarekiko desberdintasunak: subjektua morfologikoki agerian eta osagarri zuzenaren pertsona murriztapenik ez.

(39) (Jones/itsasoak) zu/ni ekarri zaitu/nau honaino.

4. Arazo pertsonalaren bi aldeak batzen: analisi sintaktikoa

- Egitura inpertsonala eta ohiko iragankorra:

(40) Liburu hauek erraz saltzen dira.

Inpertsonala

(41) (Jonek) liburu hauek erraz saltzen ditu.

Iragankorra




Egitura inpertsonala iragankorra baino murriztagoa da (Berro eta beste 2021).

Iragankorrak → bi buru funtzional (Denb eta Boza).

Inpertsonalak → buru funtzional bakarra (Denb).

4. Arazo pertsonalaren bi aldeak batzen: analisi sintaktikoa




Egitura iragankorretan bi buru funtzional: Denb eta Boza.

Denb = subjektuarekin komunztadura egiten du → ergatibo komunztadura.

Boza = osagarriarekin komunztadura egiten du → absolutibo komunztadura.


4. Arazo pertsonalaren bi aldeak batzen: analisi sintaktikoa



Egitura inpertsonaletan buru funtzional bakarra: Denb (Boza defektiboa da).

Denb-ren phi-tasunak zatitu: subjektuak [pertsona] tasunetan komunztadura egin; osagarriak [numero] tasunetan.

4. Arazo pertsonalaren bi aldeak batzen: analisi sintaktikoa



🧐 3. pertsonako argumentuek ez dute [pertsona] tasunik. 1. eta 2. pertsonako argumentuek bai.

🧐 Barne argumentuak ezin du [petsona] tasunetan komunztadura egin → ezin da 1. edo 2. pertsona izan.

5. Pertsona murriztapenak badu bere konponbidea

- Bada modu bat 1. eta 2. pertsonako barne argumentuak izateko inpersonaletan → datiboz markatzea

(Ortiz de Urbina 2003; Rezac 2009; Berro eta Fernández 2021; Berro eta beste 2021)

(8) Ondo ikusten zait (*niri*) handik?



(9) Ez zaizu ezagutu ere egiten (*zuri*) orrazkera berri horrekin.



5. Pertsona murriztapenak badu bere konponbidea

- Datiboa da bide bakarra:

(42) Aspaldian ez zaitugu ikusi (zu).

Iragankorra

(43) */? Aspaldi ez zara ikusi (zu).

Inpertsionala (ABS OZ)

(44) Aspaldian ez zaizu ikusi (zuri).

Inpertsionala (DAT OZ)

5. Pertsona murriztapenak badu bere konponbidea

- Euskalkian eta batuan, bietan (dirudienez, hego-mendebaldean bakarrik)

Lekeitio (mendebaldean):

(45) Morena ikusten jatzu.

(46) Ikusten jat hemen?

(47) Ezagutu be ez jatzu eitxen daukazun etxuriagaz.

Getxo (mendebaldean):

(48) Baltzakiñe ikusten datzu.

(49) Ikusten dast hemen?

(50) Ezetu bere ezta zu iten dekozun itxureaz.

Lesaka (euskara nafarra):

(51) Ikusten zaizu morena.

(52) Ikusten zait hemen?

(53) Ez zaizu izautzen ere baduzun itxurarekin.

Baztan (euskara nafarra):

(54) Ze beltzarana kusten zaizun!

(55) Kusten zait hemen?

(56) Etzaizu zauntzen ere baizun itxurekin.

5. Pertsona murriztapenak badu bere konponbidea

- Batuan ere, baina kolokialagoak-edo diruditen adibideetan

(57) Zer duzu, baina, gaur triste **ikusten zaizu**. (Mikel Urdangarin, 2002, *Heldu artean*, Gaztelupeko ahotsak)

(58) Alice ez zen horrelakoa, baina azkarra zen eta edozertara adaptatzeko gogotsu **ikusten zitzaion**. (Katixa Agirre, 2018: 69, *Amek ez dute*, Elkar)

(59) Handi **ikusitako** Athletici zelaian, eta txiki utzi du Bartzelona. (*Berria*, Perfekzioaren mugan, 2021-01-18)

Goenkale corpora:

(60) Azken egunotan, pittin bat desberdin **ikusten zait**. (1027. atala, *Errudunaren bila*, sek. 9 Aitor)

(61) Aldatuta **ikusten zaizu**. (118. atala, *Umeen negarra*, sek. 10, Leonor)

(62) Gainontzean ere, jator **ikusitako**... Ginarena ere gainditu du... Hura Lasatarra da gero. (194. atala, Usteak ustel, sek. 12, Josemari)

5. Pertsona murriztapenak badu bere konponbidea

- Osagarrien Markapen Bereizgarriarekiko lotura (OMB)

(Fernández eta Rezac 2016; Odria 2017)

(63) Gaur triste ikusten zaitut (**zu**)

(64) Gaur triste ikusten dizut (**zuri**) → (57) Gaur triste ikusten zaizu (**zuri**)

- ✓ Bietan datiboz markatu osagarria, absolutiboz beharrian.
Komunztaduran ere islatzen da.
- ✓ Bietan datiboa jasotzen duten argumentuak dira biziduntasunean goren daudenak: 1. eta 2. pertsonako izenordainak eta 3. pertsonako gizakiak.

5. Pertsona murriztapenak badu bere konponbidea

- Osagarrien Markapen Bereizgarriarekiko lotura (OMB)

(63) Gaur triste ikusten zaitut (**zu**)

(64) Gaur triste ikusten dizut (**zuri**) → (57) Gaur triste ikusten zaizu (**zuri**)

- X Inpertsionala egitura iragangaiztua da morfologikoki (*izan* vs. **edun*)
- X OMB hautazkoa da hiztun askorentzat. Inpertsonean, aldiz, 1. eta 2. pertsonako barne argumentuak onartzeko datiboz markatzea da aukera bakarra.
- X OMBren muga argiagoa 1., 2 vs. 3. pertsonaren artean. Inpertsonean, ez da horren argia.

5. Pertsona murriztapenak badu bere konponbidea

- Osagarrien Markapen Bereizgarriarekiko lotura (OMB)

(63) Gaur triste ikusten zaitut (**zu**)

(64) Gaur triste ikusten dizut (**zuri**) → (57) Gaur triste ikusten zaizu (**zuri**)

¿ Kontaktuaren eraginez?

¿ Izan liteke, biak hego-mendebaldekoak.

¿ Baina datibodun inpertsonalak onarpen zabalagoa OMBk baino.

¿ OMB askoz ere estigmatizatuagoa.

5. Pertsona murriztapenak badu bere konponbidea


- Datiboak nondik? Analisi sintaktikoa 🧐

(Berro eta beste 2021)

- ABS argumentuen pertsona murriztapena buru funtzional bakarra egoteari egotzi diogu.
- DAT markatu ahal izatea ildo beretik azalduko dugu:
 - eratorpen sintaktikoan beste buru funtzional bat sartu da (K).
 - buru horrek barne argumentuaren [pertsona] tasunak erkatzea ahalbidetzen du.
 - Pertsona murriztapena konpontzen da (ingelesez, *repair strategy*) (Rezac 2011)
 - Buru horri esker agertzen da DAT kasua eta komunztadura.


5. Pertsona murriztapenak badu bere konponbidea

- Datiboak nondik? Analisi sintaktikoa 🧐



5. Pertsona murriztapenak badu bere konponbidea

- Datiboak nondik? Analisi sintaktikoa 🧐



🧐 3. pertsonako argumentu bizidunak ere datiboz → 3. pertsona gizakia denean, [pertsona] tasuna gramatikalizatu egiten da batzuetan

Ondorioak

- Egitura inpertsonalak argumentu bikoak dira semantikoki eta sintaktikoki.
- Egitura inpertsonalak arazo pertsonalak dauzka:
 - Kanpo argumentu isila DS kategoriakoa da eta [+gizaki] interpretazioa izan behar du.
 - Barne argumentuak ezin du 1. edo 2. pertsonakoa izan → pertsona murriztapena.
- Arazo pertsonalak elkarri lotuta daude:
 - Kanpo argumentuaren pertsonatasuna da barne argumentuaren pertsona murriztapena sortzen duena.
- Arazo pertsonala bi argumentuek buru berarekin komunztadura egitetik datorrenez, buru funtzional bat gehituta konpontzen da ezgramatikaltasuna (DAT).

Aipamenak

Albizu, Pablo. 1997. En torno a la inacusatividad sintáctica de las construcciones impersonales del euskera. *Interlingüística* 8. 13–18.

Albizu, Pablo. 2001. Datibo sintagmaren izaera sintaktikoaren inguruan: eztabaidarako oinarrizko zenbait datu. In Beatriz Fernández eta Pablo Albizu (ed.), *Kasu eta komunztaduraren gainean. On Case and Agreement*. Bilbao: UPV/EHU. 49–69.

Berro, Ane eta Beatriz Fernández. 2021. Basque impersonals in comparison. *Linguistics. An Interdisciplinary Journal of the Language Sciences*.

Berro, Ane, Ane Odria eta Beatriz Fernández. 2021. Person matters in impersonality. *Syntax*. Willey

Fernández, Beatriz eta Milan Rezac. 2016. Differential Object Marking in Basque varieties. In Beatriz Fernández eta Jon Ortiz de Urbina (ed.), *Microparameters in the grammar of Basque*, Amsterdam: John Benjamins. 93–139.

Mendikoetxea, Amaya. 1999. Construcciones con *se*: medias, pasivas e impersonales. In Ignacio Bosque eta Violeta Demonte (ed.), *Gramática descriptiva de la lengua española*. vol. 2. Madrid: Espasa Calpe. 1631–1722.

Aipamenak

Odria, Ane. 2017. *Differential object marking in Basque syntax*. PhD diss., UPV/EHU.

Ormazabal, Javier eta Juan Romero. 2019. The formal properties of non paradigmatic SE. *Borealis: An International Journal of Hispanic Linguistics*, 8:55–84.

Ormazabal, Javier eta Juan Romero. 2020. Deconstructing SE constructions: number agreement and post-syntactic variation. UPV/EHU & University of Extremadura.

Ortiz de Urbina, Jon. 2003. Impersonal clauses. In José Ignacio Hualde eta Jon Ortiz de Urbina (ed.), *A Grammar of Basque*. Berlin/New York: Mouton de Gruyter. 572–591.

Rezac, Milan. 2009. Person restrictions in Basque intransitives. *Lapurdum* 13, 305–322.

Rezac, Milan. 2011. *Phi-features and the modular architecture of language*. London/New York: Springer

Rodet, Ana. 1992. Construccions amb lectura arbitrària en basc. *ASJU* 26, 145–179.

Eskerrik asko!

